

1. Gaia. Ariketen Ebazpenak Konposatu ez-organikoak. Irizpide orokorrak

1. Konposatuaren egituraren informaziorik ez daukagunean, ondoko nomenklatura-sistema erabiliko da:

- Konposizio-nomenklatura.
- Ordezkapen-nomenklatura.
- Adizio-nomenklatura.

2. Elementuen segida jarraituz, O_2Br edo BrO_2 idatzi beharko genuke?

- O_2Br
- BrO_2

3. Ondoko kopuruei dagozkien aurrizki biderkatzaileak idatzi itzazu:
Espezie sinpleetarako

| | |
|------|-----------------|
| 9 | nona |
| 17 | heptadeka |
| 23 | trikosa |
| 36 | hexatriakonta |
| 45 | pentatetrakonta |
| 60 | hexakonta |
| 200 | dikta |
| 1000 | kilia |

4. Ondoko kopuruei dagozkien aurrizki biderkatzaileak idatzi itzazu:
Espezie korapilatsuetarako

| | |
|----|-----------|
| 3 | tris |
| 5 | pentakis |
| 8 | oktakis |
| 10 | dekakis |
| 12 | dodekakis |

5. Ondoko formula-izenetatik zuzenak adieraz itzazu:

- $CuBr_2$: kobre(+2) bromuro
- $FeCl_2$: burdina(2+) kloruro
- N_2O_5 : nitrogenu(V) oxido
- PCl_3 : fosforo(+III) trikloruro
- AsH_3 : artsina
- $NaNO_3$: sodio trioxidonitrato (1-)